

# PROGRAMAZIO LABURTUA

IKATETXEAREN IZENA	OLABIDE IKASTOLA						2017-2018		
ARLOA / GAIA	M A T E M A T I K A						DATA	2017-09-14	
ETAPA - MAILA	1 DBH	X	2 DBH		3 DBH		4 DBH	1 BATX.	2 BATX.

1	HELBURUAK: GUTXIENGO GAITASUN MODUAN DEFINITUA								
<p>1. Informazio kuantitatiboa behar adinako zehaztasunez eta zuzentasunez adierazi, helburuaren baitan zenbaki mota eta adierazpen egokiena baliatuz.</p> <p>2. Landutako irizpideen baitan informazio kuantitatiboa eraldatuz, adierazpen matematiko baliokideak sortu.</p> <p>3. Era guztietako zenbakiekin kalkuluak egin, kalkularako eta adierazpenerako teknikarik egokiena baliatuz (mentala, algoritmikoa, kalkulu-orria...).</p> <p>4. Era guztietako zenbakiak, oinarriko lau eragiketak eta zenbakien arteko erlazioak erabiltzea eskatzen duten problema numerikoak ebaztean, zeregin hori burutzeko landutako jarraibideak aplikatu.</p> <p>5. Aurretik emandako informaziotik abiatuz, maiztasun eta proportzionaltasun-erlazioetan ohikoak diren elementuak identifikatu.</p> <p>6. Ikerketa estatistikoaren emaitzetara iristeko beharrezkoa den informazioa eskuratzeko tresna diseinatu eta sortu.</p> <p>7. Ikerketaren xedearen baitan, maiztasun- eta proportzionaltasun-erlazioetan parte hartzen duten elementu esanguratsuenak deskribatu matematikaren hainbat adierazpen-molde erabiliz eta azken bi horien sorkuntzarako IKT teknikak baliatuz.</p>	<p>8. Maiztasun- eta proportzionaltasun-erlazioetan, datu batzuetatik abiatuta eta haiek eraldatuz, informazio berria sortu prozedura algoritmikoak eta IKTak baliatuz</p> <p>9. Hainbat adierazpen-moldetan emandako informazioa interpretatuz, ondorioak iragarri eta aieruak formulatu, arrazoi egokiak emanez.</p> <p>10. Irudi lauen eta gorputz geometrikoen elementu bereizgarriak identifikatu eta, emandako ezaugarrien baitan, multzokatu.</p> <p>11. Irudi lauak eta gorputz geometrikoak aztertuz, horietan adierazten diren elementuen arteko erlazioakinferitu eta, erlazio horiek baliatuz, datu berriak eskuratu.</p> <p>12. Geometria lauaren ezaugarriak eta propietateak kontuan hartuz eta eskuz zein euskarri digitalak erabiliz, irudi geometrikoak planoan adierazi, horretarako behar diren eraldaketak eginez.</p> <p>13. Proposatutako banaketak egiteko eremu lauak neurtu, irudiak deskonposatuz zein formulak aplikatuz, eta eragiketak zuzen burutu.</p> <p>14. Emandako datuetatik abiatuta, horien arteko erlazioa proportzionala den erabaki eta, proportzioa erabiliz, informazio berria lortu.</p>								

2 EDUKIEN DENBORALIZAZIOA					
ORD.	1. ebaluazioa	ORD.	2. ebaluazioa	ORD.	3. ebaluazioa
8	Zenbakiak (1)	8	Maiztasun, proportzionaltasun erlazioa (5)	30	Geometria (10,11,12,13)
12	Unitate aldaketak (2)	10	Estatistikaren oinarriak (6)	10	Proportzionaltasuna (14)
10	Eragiketak (3)	10	Ikerketa estatistikoa (7)		
10	Buruketak (4)	12	Informazioaren kudeaketa (8,9)		

3	METODOLOGIA
<p>Ebaluaketa bakoitzean unitate didaktiko bat lantzen dugu. Unitate bakoitza 3 fasetan banatzen delarik: Hasiera fasea, garapen fasea eta amaierako fasea. Hasiera fasean zer ikasiko dugun eta zertarako erabiltzen den tratatzen dugu, biziaren errealeko egoera bat planteatuz. Garapen fasean eduki-baliabideak eskuratzeko azalpen eta ariketak lantzen ditugu eta bukatzean hasieran planteaturiko egoerari aurre egiten diogu. Amaierako fasean antzeko egoera baten aurrean nola jokatu aztertuko dugu.</p>	

4	BAILABIDEAK
<p><b>TESTU LIBURUA:</b> MATEMATIKA 1 (Bigarren Hezkuntza)</p>	
<p><b>EDITORIALA:</b> ELKAR</p>	

<b>5</b>	<b>EBALUAZIO SISTEMA</b>						
<b>KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK</b>							
<p>Unitate didaktiko bakoitzean eduki-baliabideak neurtzeko bi azterketa egingo ditugu.</p> <p>Unitatea bukatzean konpetentziak neurtzeko beste azterketa bat egingo dugu, egoera berri bati erantzuna eman beharko diotelarik bertan.</p> <p>Jarrerak %20ko eragina izango du ebaluazioaren azkenengo notan.</p>							
<b>KALIFIKAZIOEN BALIO PORTZENTUALA</b>		<b>EDUKI-BALIABIDEAK</b>	<b>% 50</b>	<b>KONPETENTZIAK</b>	<b>% 30</b>	<b>JARRERAK</b>	<b>% 20</b>

<b>6</b>	<b>BERRESKURAPEN SISTEMA</b>					
<p>Unitate didaktiko bakoitzean, suspenditutako eduki-baliabideak ebaluaketaren bukaeran errekueratu ahalko dira azterketa baten bidez (errekuperaketa).</p> <p>Errekuperaketa azterketa hori ere suspenditzekotan, ekainean, kurtsoan zehar gainditu gabeko unitate didaktikoen eduki-baliabideen errekueraketa egingo da (nahikotasuna).</p> <p>Nahikotasunean unitate didaktikoren bat suspenditzen bada, ez-ohiko deialdian urteko unitate didaktiko guztiak elkartzen duen azterketa baten bidez berreskuratu ahalko da. Ez-ohiko deialdiko azterketa suspenditzen bada, kurtso horretan irakasgaia suspenditutzat geldituko da.</p> <p>Hurrengo urtean.... Aukerak: Urrian azterketa bat, lehenengo ebaluaketa gaindituta ere gainditu, aste santu baino lehen beste ohiko azterketa bat, ekainean ez-ohiko deialdian beste bat.</p>						